## UDALBALTZAK 2023KO AZAROAREN 7an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA:**
And. Ibernalo Basterra Txasko

**ZINEGOTZIAK:**
Manuel Muñoz Morentin jauna
And. Miryam Candida Quintana Urrea
Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz jauna
Javier López de Luzuriaga García jauna
And. Ione García de Acilu Diaz de Alda
Esteban Gómez Echagoyen jauna
Juan José García de Acilu Perez jauna
And. Lucia Elorza Lorenzo

**IDAZKARIA:** Lara Salceda Villaumbrales

Santikurutze Kanpezun, Kanpezuko Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila hogeita hiruko azaroaren zazpian, arratsaldeko zazpiak eta minutu bat pasatu denean, lehen deialdian bildu dira lehen aipatutako zinegotziak, osoko bilkuraren ohiko bilkura egiteko, Ibernalo Basterra Txasko Alkate andrea buru dela, eta bitarteko idazkari kontu-hartzailea bertan dela.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2c) artikuluarekin eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 90. artikuluarekin bat etorriz, beharrezko quoruma hasi ahal izateko egiaztatzen da, eta ondoren, gai-zerrendan sartutako gaiak bideratzen dira.

### <u>1.- AURREKO BILKURETAKO AKTA ARRUNTA ETA BEREZIA ONESTEA</u>

Lehendakari andreak galdetu du ea Udalbaltzako kideren batek oharren bat egin behar duen 2023ko urriaren 17ko ohiko aktari buruz eta 2023ko azaroaren 2ko ezohiko aktari buruz. Akta horren kopiak helarazi zitzaizkien jaun-andreei bilkura honetarako zitazioarekin batera.

Jarraian, aipatutako aktak bozkatu dira, eta gehiengoak honako hau erabaki du: 2023ko urriaren 17ko ohiko akta, bertaratutakoen aho batez (Basterra, Muñoz, Quintana, López de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, García de Acilu Díaz de Alda, Gómez, García de Acilu Pérez eta Elorza jaun-andreen aldeko bozkekin), eta 2023ko azaroaren 2ko ez-ohiko akta, gehiengo osoz (Basterra, Quintana, Ruiz de Loizaga, López de Luzuriaga,

Gómez eta Elorza jaun-andreen aldeko botoekin, eta Muñoz, García de Acilu Perez eta García de Acilu Diaz de Alda jaun-andreen abstentzioarekin).

Gehiengo horiek aurkeztutako ohiko eta ezohiko akta onartu da. Lehendakari andreak akta horiek onartutzat jotzen ditu, eta akta-liburura transkribatzeko agintzen du, AJAren 110.2. artikuluarekin bat eginez.

## 2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

AJAren 42. artikuluan agindutakoa betetzeko, Alkateak labur azaldu dizkio Udalbatzari azken osoko bilkuratik hona hartu dituen ebazpenak. Hona hemen ebazpenak:

| | | DEKRETUAK 2023 |
|---|---|---|
| 273 | 2023/10/05 | BANKU-BIDALKETA ONARTZEA |
| 274 | 2023/10/05 | 1.POLIGONOKO 2376 ETA 802 PARTZELETAN EGUZKI-PANELAK ORDEZTEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 275 | 2023/10/05 | OTEOKO ERDIKO AUZOKO 14.ZENBAKIAN HORMA KONPONTZEKO, LURZAILA IXTEKO ETA ZOLATA JARTZEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 276 | 2023/10/05 | 1. POLIGONOKO 447. LURZATIAN TELEFONIA MUGIKORREKO OINARRIZKO ESTAZIOA JARTZEKO LIZENTZIA EMATEA |
| 277 | 2023/10/16 | BANKU-BIDALKETA ONARTZEA |
| 278 | 2023/10/17 | ERAIKUNTZAREN KALITATEA KONTROLATZEKO ARAUZKO IKUSKAPENAREN ESLEIPENA-EGIAZTAGIRI ENERGETIKOAK |
| 279 | 2023/10/18 | ORTZADA IOAR ELKARTEAK ABESBATZAREN MATERIALA EGINDAKO DOHAINTZA ONARTZEA |
| 280 | 2023/10/20 | ARMARRIA ETA BANDERA DISEINATZEKO ZERBITZUEN KONTRATU TXIKIA LUZATZEKO ALDAKETA |
| 281 | 2023/10/20 | 3792 PARTZELA BESTERNDU GABE DEKLARATZEA, ENKANTE PUBLIKOA FRONTOIAREN |
| 282 | 2023/10/23 | GARBIKETA INTEGRALERAKO KONTRATUA ESLEITZEA |
| 283 | 2023/10/23 | 1. POLIGONOKO 1352-1355-1357-1623 LURZATIAK ETA 4 POLIGONOKO 3500 LURZATIAK IXTEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 284 | 2023/10/24 | BANKU-BIDALKETA ONARTZEA |
| 285 | 2023/10/24 | SANTIKURUTZE KANPEZUKO ARRABAL KALEKO 3. ZENBAKIAN ITOGINA KONPONTZEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 286 | 2023/10/24 | ANTOÑANAKO SOL KALEKO 4.ZENBAKIAN DAGOEN ETXEBIZITZAREN BARRUALDEA ERABERRITZEKO OBRETARAKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 287 | 2023/10/24 | ANTOÑANAKO DAMIAN USATEGUI PLAZAKO 1.ZENBAKIAN BEROGAILUA BERRITZEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 288 | 2023/10/24 | GAINBALIOAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA |
| 289 | 2023/10/26 | GAINBALIOEN LUZAPENA |
| 290 | 2023/10/27 | 2024.URTEKO GAZTELEKU LUDOTEKAREN LIZITAZIO-ESPEDIENTEA ONARTZEA |
| 291 | 2023/10/27 | 56/2019 DEKRETUAREN BIDEZ EMANDAKO OBRA-LIZENTZIAREN LUZAPENA |
| 292 | 2023/10/27 | SANTIKURUTZE KANPEZUKO SANTA ELENA KALEKO 26. ZENBAKIAN HESIA BERRITZEKO OBRA-LIZENTZIA EMATEA |
| 293 | 2023/10/30 | URRIKO NOMINEN ONARPENA |
| 294 | 2023/10/31 | ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAREN AUDITORIA EGITEKO KONTRATU TXIKIA ESLEITZEA |
| 295 | 2023/10/31 | 01/2023 KREDITUA TRANSFERITZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA |
| 296 | 2023/11/02 | HAURREN GELAKO INSONORIZAZIOA-FAKTURAREN ORDAINKETA ONARTZEA |
| 297 | 2023/11/02 | UDAL FRONTOIA KONPONTZEKO FAKTURAREN ORDAINKETA ONARTZEA |
| 298 | 2023/11/04 | BANKU-BIDALKETA ONARTZEA |

García de Acilu Perez jaunak hartu du hitza eta 276 Alkatetzaren Dekretuaren bidez emandako lizentziari buruz galdetu du.

Alkateak esan du futbol-zelaira igotzen ari den lursaila dela eta interesa duen enpresak telefonia mugikorreko oinarrizko estazio bat ezartzeko lizentzia eskatu duela. Jakinarazi du espedientea jendaurrean jarri dela, tabloian argitaratu dela, eta inork ez duela kontrako alegaziorik egin. Beraz, lizentzia eman da.

García de Acilu Perez jaunak galdetu du ea segurtasuneko, erradiazio etabarreko arau guztiak errespetatzen diren, eta kezkatuta azaldu da gai sentikorra delako. Hala eta guztiz ere, uste du aplikatu beharreko araudia bete dela.

Alkateak espedienteak izapideak bete dituela azpimarratu du galderari erantzunez.

Alkatea andreak 278 dekretuari buruzko informazioa ematen jarraitu du. Azaldu du eraikinen inguratzaileen kalitatea kontrolatzeko ikuskapen teknikoak egiteko kontratu ba dela. Jakinarazi du esleipena Aplusnorcontrol enpresaren alde egin dela 3.170,00 euroren truke, BEZa kanpo. 280 dekretua aipatzen jarraitu du, eta esan du ebazpenak moldatu duela armarria eta bandera egiteko kontratua, eta IDEOlab esleitu zaiola, enpresa horrek hasieratik egin baitu lana. Kontratuaren zenbatekoa 2.400,00 eurokoa da, BEZa kanpo. Jarraian, frontoiaren garbiketa zerbitzuari buruzko 282 dekretuaren berri eman du. Esleipena Abando enpresaren aldekoa izan dela zehaztu du. Zerbitzuaren prezioa 4.633,34 eurokoa da, BEZa barne. Ondoren, Ludoteka eta Gazteleku zerbitzua emateko kontratua abenduan amaitzen dela iragarri du, eta lizitazioa berriz atera dela aipatu du. Kontratuaren epea, urtebetekoa izango da, eta proposamenak aurkezteko epea azaroaren 13an amaitzen dela jakinarazi du. Etxebizitza komunitarioan auditoretza energetikoko zerbitzua kontratatzeko 294 dekretuari buruzko informazioa ematen jarraitzen du. Azaldu duenez, enpresa esleipenduna Ingeniaria Goen izan da, 2.032,80 euroko zenbatekoan, BEZa barne. Gogorarazi du jarduketa horrek Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza bat duela jasangarritasun energetikoaren foru-lerroan. Alkateak jakinarazi du eraginkortasuna hobetzeko ezar daitekeen galdara motari buruzko aukerak ezagutzea dela horren helburua, besteak beste.

Azkenik, Alkateak Garcia de Acilu Perez jaunari jakinarazi dio behar duen dokumentazio guztia bidal dakiokeela.

Garcia de Acilu Perez jaunak hartu du hitza, eta aipatutako gaiarekiko sentsibilitatea azaldu du berriro ere. Era berean, adierazi du araudi osoa benetan beteko dela espero duela. Jarduerak arau guztiak errespetatzen dituela ziurtzat jotzen duela azaldu du. Hala ere, Udalaren osoko bilkuran bere kezka adierazi behar zuela uste du.

Alkateak baieztatu du gaiaren gainean egongo direla arau guztiak errespetatzen direla bermatzeko.

Osoko bilkura jakinaren gainean geratu da.

## 3. HALA BADAGOKIO, %0,5EKO ORDAINSARI-IGOERA GEHIGARRIA ONARTZEA

Alkatea andreak hartu du hitza, eta EUDELek sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsariak %0,5 igotzeko gomendioari buruz jasotako proposamenaren berri eman du, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeuden ordainsariak kontuan hartuta. Soldata-igoera atzera-eraginkortasun ondorioekin aplikatuko dela jakinarazten da 2023ko urtarriletik gaur egunera arte.

EUDELen gomendioa sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarien igoerari dagokionez, bozkatu egin da aipatutako igoera onartzeko:

**XEDAPEN-ZATIA:**

**ERABAKIA:** Aho batez erabaki dute bertaratuko kideei:

**LEHENENGOA.**- Sektore publikoaren zerbitzurako langileen ordainsarien % 0,5eko igoera gehigarria onartzea, abenduaren 23ko 31/2022 Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 2 a) artikuluarekin bat eginez.

**BIGARRENA.-** 2022ko abenduaren 31an indarrean zeuden ordainsariekiko igoera aplikatzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

## 4. LEHENDAKARITZAREN TXOSTENAK

Alkateak hitza hartu du zinegotziei hitza emateko. Lehenik eta behin, Quintana andreak hartu du hitza, Kulturako zinegotzia den heinean, eta hurrengo asteetarako programatutako jardueren berri eman du:

Hasteko, azaroaren 12an Kanpezuko azoka izango dela azaldu du. Larunbatean, hilaren 11an, 19:00etatik aurrera, pilota partiduak izango dira. Lehenengo partidua Maeztuko pilota eskolako txikienena izango da, eta ondoren Goñiren agurrarekin amaituda, Jauregi-Goñi Urmeta-Azanzaren aurka. Igandean, azaroak 12, azoka izango da eta programari dagokionez, aurreko urteetako dinamikarekin jarraituko dela azaldu du. Aurten produktuen merkatuaren kokapena aldatu dela aipatu du, eta arrabal kalean izan beharrean, La Villa kalean izango dela adierazi du, Farmaziaraino hain zuzen ere. Farmaziako larrainetan animaliak egongo dira, eta artisauak urtero bezala frontoian. Jarraian, 12:30etan txikientzako sukaldaritza tailerra izango da plazan, eta okindegiaren ondoan herri kirolan egongo direla adierazi du.

Bestalde, azaroaren 18ko eta 19ko asteburseverako txakur detektatzaileen ligan nazionalaren azken froga egingo dela azaldu du. Txakurren hiru froga egin beharko dituzte jartzen dizkieten substantziak detektatzeko. Honako froga hauek aipatu dira: paketeria, barruko espazioa (igerilekuetako aldageletan egingo dena) eta ibilgailu barruan egingo den froga. Quintana andreak azaldu duenez, frogak larunbatean eta igandean izango dira, eta aipatu du larunbatean jarduera lagundua izango dela txikientzako. Froga hau gimnasioan izango da. Era berean, gogorarazi du azaroaren 19an Inaziotar bidearen eguna dela, eta martxa bat izango dela goizeko 10:00etan Uribarritik Orbisoraino.

Ondoren, Kulturako zinegotziak Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako eguna den azaroaren 25a ekarri du gogora, eta bertaratutakoei Kanpezuko plazan 13:30etan eta ordubete lehenago Maeztun izango den kontzentrazioaren berri eman die. Egun horretan bertan, musika klasikoko kontzertu bat izango dela azaldu du, Araba osoan egongo den kontzertu-zirkuitu baten baitan kokatuta dagoena.

Azkenik, azaroren 26an Bizilagunen eguna izango dela aipatu du. Azaldu duenez, oraingoz ez da egitaraua itxi, eta gogoratu du goizean jardueraren bat izango dela. Eguna herri bazkari batekin amaituko da kultur Etxean.

Jarraian, Ogasuneko zinegotzi den Muñoz jaunak hartu du hitza, eta hainbat gairi buruzko informazioari ekin dio. Lehenik eta behin, bertaratutakoei jakinarazi die hiru langile kontratatuko direla abenduan hasteko, lanbideren diru-laguntzaren bitartez. Langileek azokan, garbiketan, etabar. laguntzen dutela adierazi du. Ejekuzio-egoerari

dagokionez, egoera positiboa dela adierazi du. Gogoratu du urtea amaitu arte ezin dela jakin egoera bere horretan. Diruzaintzari dagokionez, 700.000 eurotik gora dagoela esan du, eta urtea amaitzeko arazorik ez dagoela adierazi du.

2024ko ekitaldirako aurrekontu orokorrei dagokienez, bertaratutakoei jakinarazi die beste urte batzuetako eskemekin jarraituko dela. Lehenik eta behin, zirriborroa teknikariekin landu egingo da, eta ondoreon 2023ko aitortutakoaren arabera eta aintzat hartuta dagoena kontuan hartuta, egokituko da. Ondoren, azaldu egin du gazetaren bitartez aurrekontu partehartzaileak burutzeko proiekturako ideiak banatuko direna. Aurrerako, Batzar Administratiboei aurkeztuko zaie aurrekontu proposamena euren ideiak eta beharrak jasotzeko. Lehenengo zirriborro horrekin, azaroaren amaierarako izan nahi dena, oposizioari bidaliko zaio ideiaren bat jasotzeko, asmoa baita urte amaierarako aurrekontua 2023ko abenduko osoko bilkuran onartzea. Ogasuneko zinegotziak azaldu duenez, aurrekontu orokorra hiru puntutan banatuta dago: arrunta, gastu orokorrak (gehikuntzekin batera) eta Batzorde Ekonomikoaren zatia (eskola partzuergoa), aurreko bileran onartu zena. Era beran, jakinarazi du inbertsio-partida aurrekontu arruntetatik ateratzen dela, eta, ondoren, laguntza-lerroen deialdiekin lotzen dela. Era berean, aurrekontu orokorrean zergen berrikuspena islatu dela adierazi du. Azaldu duenez, asmoa tasaren bat handitzea da, gastuak eta diru-sarrerak orekatzeko. Azkenik, azaroaren amaieran zirriborroa oposizioko taldeari helaraziko zaiola adierazi du.

**5. GALDE-ESKEAK**

Alkateak udal-bozeramaileen taldeari galdetu dio ea gairen bat adierazi nahi duten.

Ruiz de Loizaga jaunak hartu du hitza, eta Arabako Lurralde Plan Partzialaren berri eman du. Gogoratu du Eusko Jaurlaritzak irailaren 4an eman ziola hasierako onespena plan horri. Kanpezun planoak eta fitxak azaroaren 10etik 16ra bitartean erakutsiko direla aipatu du, eta azkenik, azaroaren 16an teknikariekin informazio-saio bat egingo dela adierazi du.

Jarraian jakinarazten da hurengo Udal Osoko Bilkura abenduaren amaieran izango dela, data zehazteke dagoela.

Eta beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du idazpuruko eguneko 19:23ak direnean. Nik, bitarteko idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Alkatearen oniritzia Idazkaria,

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN CELEBRADA EL DÍA 7 DE NOVIEMBRE DE 2023**

**ASISTENTES:**

**PRESIDENTA:**
Dña. Ibernalo Basterra Txasko

**CONCEJALES/AS:**
D. Manuel Muñoz Morentin
Dña. Miryam Cándida Quintana Urrea
D. Eduardo Ruiz de Loizaga Sanz
D. Javier López de Luzuriaga García
Dña. Ione García de Acilu Diaz de Alda
D. Esteban Gómez Echagoyen
D. Juan José García de Acilu Pérez
Dña. Lucia Elorza Lorenzo

**SECRETARIA:** Lara Salceda Villaumbrales, que da fe del acto.

En Santa Cruz de Campezo, en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ilustre Ayuntamiento de Campezo, siendo las diecinueve horas y un minuto del siete de noviembre de 2023, se reunieron en primera convocatoria, y a los efectos de celebrar sesión ordinaria del Pleno las Concejalas y Concejales anteriormente enunciados, bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa Dña. Ibernalo Basterra Txasko, con asistencia de la Secretaria Interventora interina.

Se procede a la comprobación de la existencia de quórum de asistencia precisa para que se pueda iniciar, de acuerdo con los artículos 46.2.c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y 90 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, pasándose a continuación a despachar los asuntos incluidos en el orden del día.

## 1.- APROBACIÓN ACTA ORDINARIA Y EXTRAORDINARIA DE LAS SESIONES ANTERIORES

La Sra. Presidenta pregunta si algún miembro de la Corporación tiene que formular alguna observación sobre el acta ordinaria de 17 de octubre de 2023 y sobre el acta extraordinaria de 2 de noviembre de 2023, de la que se hicieron llegar copias a cada uno de los Sres. Concejales y Sras. Concejalas junto con la citación a la presente sesión.

A continuación, se procede a la votación de las precitadas actas, y se acuerdan por las siguientes mayorías: el acta ordinaria de fecha 17 de octubre de 2023 por unanimidad de los presentes (con los votos favorables de los Sres/as Basterra, Muñoz, Quintana, López de Luzuriaga, Ruiz de Loizaga, García de Acilu Diaz de Alda, Gómez, García de Acilu Pérez y Elorza), y el acta extraordinaria de fecha 2 de noviembre de 2023 por mayoría absoluta (con los votos favorables de los Sres/as Basterra, Quintana,

Ruiz de Loizaga, López de Luzuriaga, Gómez y Elorza, y la abstención de los Sres/as Muñoz, García de Acilu Perez y García de Acilu Diaz de Alda).

Se aprueba el acta ordinaria y extraordinaria presentadas por las precitadas mayorías. La Sra. Presidenta proclama aprobada las mencionadas actas, ordenando su trascripción al Libro de Actas según lo dispuesto en el art. 110.2 del R.O.F.

## 2.- DECRETOS DE ALCALDÍA

En cumplimiento de lo preceptuado en el art. 42 del ROF, la Sra. Alcaldesa informa sucintamente a la Corporación, de las resoluciones que ha adoptado desde la última sesión plenaria y el Pleno se da por enterado y que son:

| | | **DECRETOS 2023** |
|---|---|---|
| 273 | 05/10/2023 | APROBACIÓN REMESA BANCARIA |
| 274 | 05/10/2023 | CONCESIÓN LICENCIA DE OBRAS PARA SUSTITUCIÓN DE PANELES FOTOVOLTAICOS EN LAS PARCELAS 2376 Y 802 DEL POLÍGONO 1 |
| 275 | 05/10/2023 | CONCESIÓN LICENCIA DE OBRAS PARA ARREGLO DE PARED, CIERRE DE PARCELA Y SOLERA EN EL BARRIO DE MEDIO Nº 14 DE OTEO |
| 276 | 05/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA PARA IMPLANTACIÓN DE ESTACIÓN BASE DE TELEFONIA MOVIL EN EL POLÍGONO 1 PARCELA 449 |
| 277 | 16/10/2023 | APROBACIÓN REMESA BANCARIA |
| 278 | 17/10/2023 | ADJUDICACIÓN INSPECCIÓN REGLAMENTARIA CONTROL CALIDAD DE EDIFICACIÓN - OCA CERTIFICADOS ENERGÉTICOS- |
| 279 | 18/10/2023 | ACEPTACIÓN DE LA DONACIÓN ASOCIACIÓN ORTZADAR IOAR - MATERIAL DEL CORO- |
| 280 | 20/10/2023 | MODIFICACIÓN PARA AMPLIACIÓN CONTRATO MENOR DE SERVICIOS PARA EL DISEÑO DEL ESCUDO Y BANDERA |
| 281 | 20/10/2023 | DECLARACIÓN DESIERTO ENAJENACIÓN PARCELA 3792 SUBASTA PUBLICA |
| 282 | 23/10/2023 | ADJUDICACIÓN CONTRATO MENOR LIMPIEZA INTEGRAL FRONTÓN |
| 283 | 23/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA CIERRE DE PARCELAS 1352-1355-1357-1623 DEL POLÍGONO 4 Y 3500 DEL POLÍGONO 1 |
| 284 | 24/10/2023 | APROBACIÓN REMESA BANCARIA |
| 285 | 24/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA REPARACIÓN DE GOTERA EN LA C/ ARRABAL Nº 3 DE SANTA CRUZ DE CAMPEZO |
| 286 | 24/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA OBRAS DE REFORMA INTERIOR DE LA VIVIENDA DE LA C/ SOL Nº 4 DE ANTOÑANA |
| 287 | 24/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA RENOVACIÓN DE CALEFACCIÓN EN LA PLAZA DAMIAN USATEGUI Nº 1 DE ANTOÑANA |
| 288 | 24/10/2023 | APROBACIÓN LIQUIDACIÓN PLUSVALÍA |
| 289 | 26/10/2023 | PRORROGA DE PLUSVALIAS |
| 290 | 27/10/2023 | APROBACIÓN EXPEDIENTE LICITACIÓN LUDOTECA GAZTELEKU AÑO 2024 |
| 291 | 27/10/2023 | CONCESIÓN DE PRORROGA DE LICENCIA DE OBRAS CONCEDIDA MEDIANTE DECRETO 56/2019 |
| 292 | 27/10/2023 | CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA REFORMA DE VALLADO EN LA C/ SANTA ELENA Nº 26 DE SANTA CRUZ DE CAMPEZO |
| 293 | 30/10/2023 | APROBACIÓN NÓMINAS MES DE OCTUBRE |
| 294 | 31/10/2023 | ADJUDICACIÓN CONTRATO MENOR AUDITORIA VIVIENDA ENERGÉTICA |
| 295 | 31/10/2023 | APROBACIÓN EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIA DE CRÉDITO 01/2023 |
| 296 | 02/11/2023 | APROBACIÓN ABONO FACTURA INSONORIZACIÓN AULA INFANTIL |
| 297 | 02/11/2023 | APROBACIÓN ABONO FACTURA REPARACIÓN FRONTIS FRONTÓN MUNICIPAL |
| 298 | 03/11/2023 | REMESA BANCARIA |

Toma la palabra el Sr. García de Acilu Perez para preguntar por la licencia concedida a través del Decreto de Alcaldía 276.

La Sra. Alcaldesa refiere que se trata de la parcela que está subiendo al campo de fútbol y que la empresa interesada ha solicitado licencia para la implantación de una

estación base de telefonía móvil. Informa que el expediente ha sido expuesto al público, y se ha publicado en el panel, y nadie ha alegado en contra, por lo que, se ha concedido la licencia.

El Sr. García de Acilu Perez pregunta si se respetan todas las normas de seguridad, radiación, etc, y muestra su preocupación al tratarse de un tema sensible. No obstante, lo anterior, se imagina que efectivamente se ha cumplido con la normativa de aplicación.

La Sra. Alcaldesa, responde afirmando, e insiste en que el expediente ha cumplido con la tramitación.

Continua la Sra. Alcaldesa para informar sobre el Decreto 278. Explica que trata de un contrato para realizar las inspecciones técnicas para el control de calidad de los envolventes de los edificios. Informa que la adjudicación se ha hecho a favor de Aplusnorcontrol por 3.170,00 euros, IVA no incluido. Continúa mencionando el Decreto 280, y menciona que la resolución ha modificado el contrato para la elaboración del escudo y la bandera, el cual ha sido adjudicado a favor de Ideolab, empresa que ha realizado el trabajo desde el inicio. Cifra el importe en 2.400 euros, IVA no incluido. A continuación, informa sobre el Decreto 282, para el servicio de limpieza integral del frontón. Explica que la adjudicación ha sido a favor de la empresa Abando, y precisa que es la empresa que realiza la limpieza en el Ayuntamiento y en los edificios municipales. El precio del servicio son 4.633,34 euros, IVA incluido. A continuación, menciona que el contrato para prestar el Servicio de Ludoteca y Gazteleku finaliza en diciembre, y que se ha vuelto a salir la licitación. Informa sobre el plazo del contrato, un año más uno de prórroga, y sobre el plazo para presentar proposiciones, que vence el 13 de noviembre. Sigue informando sobre el Decreto 294, para la contratación del servicio de auditoría energética en la vivienda comunitaria. Explica que la empresa adjudicataria ha resultado ser Ingeniería Goen por un importe de 2.032,80 euros, IVA incluido. Recuerda que esta actuación cuenta con una subvención de la Diputación Foral de Álava en la línea foral de sostenibilidad energética. La Sra. Alcaldesa informa que el objetivo es conocer las posibilidades sobre el tipo de caldera que se pueda instalar para mejorar la eficiencia.

Por último, la Sra. alcaldesa informa al Sr. Garcia de Acilu Perez que se le puede remitir toda la documentación que necesite.

Toma la palabra el Sr. García de Acilu y muestra su sensibilidad con el tema precitado. Asimismo, manifiesta que confía en que efectivamente se cumpla con toda la normativa. Explica que da por supuesto que la actuación respeta todas las normas. No obstante, considera que debía mostrar su inquietud en el pleno municipal.

La Sra. Alcaldesa confirma que efectivamente estarán sobre el tema para que se respeten todas las normas.

El pleno se da por enterado.

## 3. APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL INCREMENTO RETRIBUTIVO ADICIONAL DE 0,5 %

Toma la palabra la Sra. Alcaldesa para informar acerca de propuesta recibida por EUDEL en relación con la recomendación para incrementar las retribuciones del personal al servicio del sector público, en un 0,5% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de

2022. Se informa que la subida salarial se aplicará con efectos retroactivos desde enero de 2023 hasta la actualidad.

Vista la Recomendación de EUDEL en lo referente a los incrementos retributivos del personal al servicio del sector público, el pleno del ayuntamiento

**ACUERDA.:** por UNANIMIDAD de los presentes

**PRIMERO.:** Aprobar un incremento adicional del 0,5% de las retribuciones del personal al servicio del sector público previsto en el artículo 19. Dos 2 a) de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, en Presupuestos Generales del Estado para el año 2023.

**SEGUNDO.:** Aplicar el incremento respecto de las retribuciones vigentes a 31 de diciembre de 2022 y con efectos de 1 de enero de 2023.

## 4. INFORMES DE PRESIDENCIA

Toma la palabra la Sra. Alcaldesa para ceder la palabra a las diferentes concejalías. En primer lugar, toma la palabra la Sra. Quintana, en su condición de concejala de Cultura para dar a conocer las actividades programadas para las siguientes semanas:

Inicia la intervención explicando que el día 12 de noviembre será la feria de campezo. El sábado 11 a partir de la 19:00 horas, habrá partidos de pelota a propósito de la feria. El primer partido será de los txikis de la eskola de pelota de Maeztu, y después se acabará con la despedida de Goñi, con Jauregi y Goñi contra Urmeta y Azanza. El domingo 12 de noviembre será la feria y respecto al programa explica que se continua con la dinámica de años anteriores. Menciona que este año se ha cambiado la ubicación del mercado de productos, y en vez de en calle Arrabal, se seguirá calle La Villa hasta la farmacia. En las eras de la farmacia estará el ganado, y los bolillos y artesanos estarán en el frontón. A las 12:30 horas, tendrá lugar el taller de cocina para txikis en la plaza, y junto a la panadería estarán los herri kirolak.

Continúa explicando que para el fin de semana del 18 y 19 de noviembre, tendrá lugar la prueba final de la liga nacional de perros detectores. Explica que se trata de tres pruebas que tendrán que realizar los perros para detectar las sustancias que les pongan. Cita las pruebas que serán las siguientes: paquetería, espacio interior (que tendrá lugar en los vestuarios de las piscinas), y prueba dentro de vehículo. La Sra. Quintana explica que las pruebas serán el sábado y domingo, y menciona que el sábado habrá una actividad asistida para los txikis, que tendrá lugar en el gimnasio. Asimismo, recuerda que ese mismo 19 de noviembre es el día del camino ignaciano, y que habrá una marcha desde Ullibarri a las 10:00 horas, hasta Orbiso.

A continuación, la Sra. Concejala de Cultura trae a lugar el día 25 de noviembre, día contra la violencia de género e informa a los presentes sobre la concentración que tendrá lugar en la plaza de Santa Cruz de Campezo a las 13:30 horas, y una hora antes en Maeztu. Ese mismo día por la tarde, habrá un concierto de música clásica y explica que se trata de un circuito de conciertos que va a haber por todo Araba.

Por último, menciona que el 26 de noviembre, domingo, será el día de Bizilagunak. Explica que por el momento no se ha cerrado el programa, y recuerda que habrá alguna actividad por la mañana y se finalizará con una paella en la Kultur Etxea.

A continuación, toma la palabra el Sr. concejal de Hacienda, Sr. Muñoz, para informar acerca de varios temas. En primer lugar, informa a los asistentes que se van a contratar a tres operarios para empezar en diciembre, con la subvención de Lanbide. Indica que los operarios van ayudando con todo el tema de ferias, etc. Respecto al estado de ejecución, informa que el estado es positivo. Recuerda que hasta que no se llegue a final de año, no se puede saber. No obstante, lo anterior, el momento actualizado es positivo. A nivel de tesorería refiere estar por encima de 700.000 euros, refiriendo no tener problema para finalizar el año.

En relación con los presupuestos generales para el ejercicio 2024, informa a los asistentes que se continuará con los esquemas de otros años. Primero se traba el borrador con los técnicos en base al histórico del año 2023, teniendo en cuenta las partidas reconocidas, mantenidas, etc. Explica que generalmente, las partidas se mantienen o se incrementan en función de lo que fuera. A continuación, informa que, a través de la gaceta, se repartirá la hoja para recibir proyecto de ideas. Más adelante, se presentarán a las Juntas Administrativas para ver sus ideas y necesidades. Con ese primer borrador, que se pretende tener para finales de noviembre, se remitirá a la oposición para observar alguna idea, ya que la intención es aprobar el presupuesto para finales de año en el pleno de diciembre de 2023. El Sr. concejal de hacienda explica que el presupuesto general está repartido en tres puntos; ordinario, gastos generales (junto con sus incrementos) y la parte de la Junta Económica, que ya está aprobado en la sesión pasada. Asimismo, informa que la partida de inversiones se saca del presupuesto ordinario, para asociarla después a convocatorias de líneas de ayuda. Igualmente se pretende reflejar una revisión de impuestos en el presupuesto general, al margen de que se vayan subiendo los impuestos a lo largo del año. Explica que la idea es incrementar alguna tasa para ir equilibrando gastos e ingresos. Por último, concluye que a finales de noviembre se trasladará el borrador al grupo de la oposición.

## 5. RUEGOS Y PREGUNTAS

La Sra. Alcaldesa pregunta al grupo de portavoces municipales si quieren formular algún tipo de cuestión.

Toma la palabra el Sr. Ruiz de Loizaga para informar sobre el Plan Territorial Parcial de Araba, el cual ha sido aprobado inicialmente el 4 de septiembre por el Gobierno Vasco. Menciona que en Campezo se expondrán los planos y fichas entre el 10 y 16 de noviembre, y finalmente el 16 de noviembre se realizará una sesión informativa con el personal técnico para formular preguntas, etc.

Se comunica que el próximo Pleno Municipal tendrá lugar finales de diciembre, pendiente de concretar la fecha.

Y no habiendo más asuntos, la Sra. Alcaldesa levanta la sesión a las 19:23 horas del día del encabezamiento, de lo que yo, La Secretaria interina, doy fe

VºBº Alcaldesa

La Secretaria